


JARDUEREN MEMORIA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa **2025**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JARDUEREN MEMORIA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

Data

2026 Martxo

Jabea

Eusko Jaurlaritza



 **euskadi.eus**

www.euskadi.eus

1	SARRERA	2
2	PROIEKTUEN ZERRENDA	2
2.1	IPPC JARDUEREN SEGIMENDU-IKUSKAPENAK	2
2.1.1	<i>Jarduketak</i>	2
2.1.2	<i>Ondorioak</i>	3
2.2	IPPC EZ DIREN JARDUEREN IKUSKAPEN PROGRAMATUA	6
2.2.1	<i>Jarduketak</i>	6
2.2.2	<i>Ondorioak</i>	6
2.3	INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEAK IKUSKATZEA (ILE).....	8
2.3.1	<i>Jarduketak</i>	8
2.3.2	<i>Ondorioak</i>	8
2.4	INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA.....	8
2.4.1	<i>Jarduketak</i>	8
2.4.2	<i>Ondorioak</i>	9
2.5	HONDAKINAK LEKUALDATZEA	9
2.5.1	<i>Jarduketak</i>	9
2.5.2	<i>Ondorioak</i>	9
2.6	PROGRAMATU GABEKO ABISUAK ETA IKUSKAPENAK KUDEATZEA	10
2.6.1	<i>Jarduketak</i>	10
2.6.2	<i>Ondorioak</i>	14
2.7	HONDAKINAK ETA MATERIAK KUDEATZEA JARDUERAK AMAITU ONDOREN.	14
2.7.1	<i>Jarduketak</i>	14
2.7.2	<i>Ondorioak</i>	14
2.8	NEURKETAK ERAKUNDE EGIAZTATUEKIN	15
2.8.1.	<i>Jarduketak</i>	15
2.8.2.	<i>Ondorioak</i>	15
3.	AZKEN ONDORIOAK	15

1 SARRERA

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritzako Zerbitzuak 2025eko ekitaldirako zehaztutako ikuskapen-programari lotuta egindako jarduketak.

2 PROIEKTUEN ZERRENDA

Jarraian jasota daude 2025eko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1 IPPC jardueren segimendu-ikuskapenak

Erreferentzia 2025/01

2.1.1 Jarduketak

2025ean, 356 ikuskapen egin dira; horietatik 162 enpresaren instalazioetan izan dira, eta 194 dokumentu-arlokoak, ingurumena zaintzeko planak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, ingurumen-organoak egindako errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatzeko. Aurrez aurreko ikuskapenei dagokienez, 139 jarraipen-ikuskapenak izan dira (programatuak), eta gainerako 23ak ikuskapen programatu gabek.

Programatutako ikuskapenak jarraipen-ikuskapenak dira, eta arriskuen analisi definitu batean oinarrituta planifikatzen dira. Azterketa hori urtekoa, bi urtekoa edo hiru urtekoa izan daiteke, eta IBBan jasotako instalazioaren ingurumen-alderdi guztiak aztertzen dira. Programatu gabeko ikuskapenak programatutakoez gain egiten diren beste ikuskapen batzuk dira, normalean gorabeherengatik edo abisuengatik egiten direnak, edo neurri zuzentzaileak edo instalazio baten alderdi zehatzak gauzatzen direla egiaztatzeko egiten direnak. Batzuk zein besteak aldeztatik abisatuta edo abisatu gabe izan daitezke, ikuskapenaren helburuaren arabera.

Era berean, adierazi behar da 2025ean, baina oraindik 2024ko proiektuarekin lotuta (2024-01), 59 ikuskapen dokumental egin direla, eta 2023koarekin lotuta (2023-01) 2 dokumental.

Ikuskapenari dagozkion aktak egin dira, eta enpresei haiei lotutako txostenak eta errekerimenduak bidali zaizkie, hala badagokio. Era berean, Sailaren webgunean argitaratu dira programatutako eta programatu gabeko aurrez aurreko jarraipen-ikuskapenei buruzko txostenak.

2.1.2 Ondorioak

Ondorio nagusia da proiektuaren hasierako programazioa bete dela. Hasiera batean aurreikusitako 137 ikuskapenetatik¹, azkenean guztiak egin dira eta beste 2 gehitu dira; guztira, programatutako 139 IPPC ikuskapen egin dira. Beraz, aurreikusitako ikuskapenen % 100a bete da.

Programatutako ikuskapenak egin ondoren, betetze-maila altua edo ertain-altua duten enpresen kopurua % 61,87 da (57 enpresek betetze maila altua eta 29k ertain-altua). Ikuskapenen % 25,90ak (36 instalazio) betetze-maila ertaina du, % 5,76ak ertain-baxua (8 instalazio) eta % 6,47k baxua (9 instalazio).

Proiektu honi dagokionez, gogoratu behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudian arautzen dela, eta araudi horrek ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen duela, jarduera bakoitzari lotutako ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, proiektuaren datu orokorrak azalduko ditugu. Zehazki, programatutako ikuskapenen ondoren, dagozkien ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari buruzko ondorioak.

IKUSKAPEN PROGRAMATUAK	EZ BETETZERIK GABEKOAK	EZ BETETZEAK DITUZTENAK
139	13	126


1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez-betetzetik ez duten instalazioen kopurua

2. taulan eta 1. irudian mota bakoitzean detektatutako ez-betetze kopurua agertzen da, ez-betetzearen larritasunaren arabera definituta, programatutako ikuskapenen ondoren.

¹ Oharra: 2025eko Programan akatsa zegoen eta 133 aurreikusita zeudela jartzen zuen.

EZ-BETETZEAK GUZTIRA	Garrantzi txikiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
604	525	72	7	0

2. Taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta




1. Irudia. Ez-betetze kopurua, mota bakoitzeko

ARRISKU-KATEGORIA (AK)

3. taulan eta 2. irudian, arrisku-kategoriaren arabera enpresa-kopurua ageri da. Adierazi behar da ikuskapenaren maiztasuna arriskuaren arabera zehazten dela, azken ikuskapena egin ondoren: AK = 1 urtean behin, AK = 2 bi urtean behin eta AK = 3 hiru urtean behin.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
139	21	55	63

3. taula. Enpresa-kopurua arrisku-kategoriaren arabera




2. irudia. Instalazioen banaketa arrisku-kategoriaren arabera

BETETZE-MAILA

4. taulan eta 3. irudian, ikuskatutako instalazioen betetze-maila ageri da.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
139	57	29	36	8	9

4. taula. Enpresa kopurua betetze-mailaren arabera



3. irudia. Instalazioen banaketa betetze-mailaren arabera

2.2 IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua

Erreferentzia 2025/02

2.2.1 Jarduketak

IPPC EZ diren jardueren ikuskapen programatua kontratatutako Ingurumen Lankidetzako Erakundeek egin dute, ingurumen-organoaren jarraibideen arabera. Halaber, ikuskapen-zerbitzuak ikuskapenak egin ditu programatu gabeko IPPC EZ diren jardueretan, eta horiek kontuan hartzen dira abisuen proiektuan.

2025 Programan helburu espezifiko gisa ezarri ziren IPPC EZ DIREN 220 operadore inguru ikuskatzea eta 2024an errekerimenduari erantzun ez dioten edo erantzun eskasa izan duten ikuskatutako enpresen % 100en jarraipena egitea.

2025an 223 ikuskapen egin dituzte ILEek. Beraz, lehen helburu espezifikoa % 101ean bete da.

Ikuskapen horietatik, 15 IPPC EZ diren hondakinak ezabatzeko instalazioei dagozkie, hondakinak zabortegian ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren arabera.

Aplikatu beharreko legeriarekiko desbideratzeak daudela egiaztatu den kasuetan, horiek zuzentzeko eskatu zaie enpresei. Aipatzekoa da desbideratze gutxi eta txikiak izan diren kasuetan, administratuarentzako izapideak sinplifikatze aldera, zuzentzeko errekerimenduaren ordeztu erantzukizunpeko adierazpen bat egin dela.

Era berean, errekerimenduei emandako erantzunen dokumentu-ikuskapenak egin dira, eta, beharrezko kasuetan, bigarren edo hirugarren errekerimenduak ere izapidetu dira.

Bigarren helburu espezifikoari dagokionez, jarraipena egin zaie 2024an desbideratzeak izan zituzten ikuskatutako instalazioen %100ari.

Ikus daitekeenez, ikuskapenetan ohikoa da desbideratzeak detektatzea. Horren arrazoia da, neurri batean, ingurumen-araudia zabala dela eta etengabe aldatzen ari dela; gainera, proiektu honetan ikuskatutako instalazio askok ez dute ingurumen-kudeaketan soilik jarduten duen langilerik.

2.2.2 Ondorioak

2025ean ikuskapenak aztertzeko, hainbat adierazle aztertu dira: egindako ikuskapenak, betetze-maila eta egindako errekerimenduen kopurua.


- Egindako ikuskapenak: 2025ean, 2024an baino 7 ikuskapen gutxiago egin dira; nolahi ere, helburua hirutan gainditu da.

URTEA	EGIINDAKO IKUSKAPENAK
2023	219
2024	230
2025	223

- Enpresen betetze-maila: Joerak erakusten du ingurumenaren betetze-maila nabarmen hobetu dela, enpresa gehiago baitaude maila altuetara iristen.

BETETZE-MAILA					
	BAXUA	ERDI-BAXUA	ERDIA	ERDI-ALTUA	ALTUA
2023	5%	16%	43%	17%	19%
2024	3%	11%	35%	18%	33%
2025	1%	3%	28%	28%	40%

Betetze-mailaren banaketa ehunekotan (2023-2025)



- Egindako errekerimenduak: egindako errekerimenduak gutxituz joan dira, % 8 2023tik 2024ra eta % 16 2024tik 2025era.

URTEA	ERREKERIMENDUAK DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA
2023	75 %
2024	67%
2025	51 %

2.3 Ingurumen Lankidetzako Erakundeak ikuskatzea (ILE)

Erreferentzia 2025/03

2.3.1 Jarduketak

Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) ikuskapen-proiekturako ezarritako plangintzaren barruan, 2025 honetan hainbat zeregin egin dira. Alde batetik, Ikuskaritza Zerbitzuko langileen bidez, EAeko atmosferaren eremuan jarduten duten ILEen kontrola egin da, eta in situ bi ikuskapen egin dira.

Gainera, antzemandako akatsak zuzendu dira eta ikuskapenen txostenen eta emaitzen jarraipena egin da.

Era berean, aldaketak erregistratzen eta Ingurumen Kontroleko Erakunde berriei alta ematen jarraitu da, EAeko Ingurumen Kontroleko Erakundeen Erregistroan. Zehazki, II. mailako ingurumen-kontrolako bi erakunde berri erregistratu dira. Era berean, irismenak edo datu administratiboak eguneratzeko eskaera jaso da.

2.3.2 Ondorioak

2025 programan hiru ikuskapen egiteko helburua zegoen; bi besterik ezin izan dira egin.

Egindako ikuskapenetan, ILEei Administrazioak haien jarduera gainbegiratzen duela jakinarazteko helburua bete dela nabarmendu behar da, baita isuriak neurtzeko ezarritako araudia betetzen dela ziurtatzekoa ere.

Bestalde, EAeko Ingurumen Kontroleko Erakundeen Administrazio Erregistroa eguneratu da.

2.4 Ingurumen-erantzukizuna

Erreferentzia 2025/04

2.4.1 Jarduketak

Hauek dira 2025ean egindako jarduerak:

- 49 jakinarazpen operadoreei, ingurumen-arriskuen analisisen berrikuspenaren berri emateko. Haietatik, 48 berrikuspen egin dira 2025ean zehar; bat geratzen da 2026 hasieran egiteke.
- 23 errekerimendu, IAaren lehen berrikuspenean antzemandako akatsak konpontzeko.

2.4.2 Ondorioak

Web-orriko informazioa mantendu eta eguneratu da, operadoreek kontsultak egin ahal izan ditzaten, beharrezko informazio guztia izan dezaten eta komunikazio telematikoa egin ahal izan dezaten.

[Ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea - Eusko Jaurlaritza](#)

IPPC eta SEVESO 48 operadoreen instalazioen arriskuen analisiak sakon berrikusi dira. Beraz, ez da lortu 50 arrisku analisi egiteko helburura iristea.

Ingurumen-baimen bakarraren (AAU) mendeko instalazioek aurkeztutako arriskuen analisiak eta erantzukizunpeko adierazpenak jasotzen jarraitu da, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 26ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotakoak.

2.5 Hondakinak lekualdatzea

Erreferentzia 2025/05

2.5.1 Jarduketak

2025eko ekitaldian 28 ikuskapen egin dira: hondakinen lekualdaketa kontrolatzeko 22 ikuskapen espezifiko egin dira EAEko hainbat operadoreetan, eta hondakinen errepide bidezko lekualdatzeetan 6 ikuskapen egin dira.

Hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa eguneratzen jarraitu du, baita mugaz gaindiko hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei indarreko legeriatik eratorritako betebeharren berri ematen ere.

2.5.2 Ondorioak

2025 urterako ezarritako helburua guztiz bete da: 9 ikuskapen operadoreetan zeuden aurreikusita eta 22 egin dira.

Urte horretan ez da portuetan ikuskapenik egin, ez dugulako horretarako eskaerarik jaso. Bestalde, errepideetan 6 ikuskapen egin dira.

Guardia Zibilak antzemandako irregulartasunei buruzko bi jakinarazpen bidali zaizkie Frantziako agintariei eta hiru Gaztela eta Leongo agintaritzari.

2.6 Programatu gabeko abisuak eta ikuskapenak kudeatzea
Erreferentzia 2025/06


2.6.1 Jarduketak

Ingurumenean eragina duten abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio EAEn 2025eko eguneko 24 orduetan. 2025ean, 774 abisu kudeatu dira.

Lurralde historikoaren arabera, abisuak honela banatzen dira:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ABISU KOPURUA	102	494	178

5. taula. Abisu-kopurua, lurraldearen arabera




4. irudia. Abisuen ehunekoa, lurraldearen arabera

Jarraian, eragindako ingurunearen eta lurraldearen arabera banaketa ikus daiteke:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
URA	16	54	37
AIREA	43	323	95
INGURUNE NATURALA	21	79	20
LURZORUA	22	38	26

6. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eraginpeko ingurunearen arabera




5. irudia. Abisuak eragindako lurralde eta ingurunearen arabera

Abisuen banaketa lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera 7. taulan adierazten da.

	Errep. Istrip.	Emis. aire	Sutea	Usain	Hondakinak	Zarata	Lurz.	Ura	Beste
ARABA	2	25	6	13	7	1	13	14	21
BIZKAIA	2	123	11	183	24	11	27	50	63
GIPUZKOA	3	51	6	16	6	23	18	35	20

7. taula. Abisu-kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera.




6. irudia. Abisuak lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera.

Jarraian, jasotako abisu-kopuruaren banaketa erakusten da, hilabeteka.

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
69	70	69	61	59	49

Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
58	49	62	93	80	55

8. taula. Abisu-kopurua hilabeteka.



7. irudia. Abisuak hilabeteka.

2.6.2 Ondorioak

Lortu da 2025ean zehar EAEn ingurumenean eragina duten abisuen kudeaketari erantzutea, eguneko 24 orduetan. Kasu batzuetan, hainbat jarduera egin dira abisuaren arazoari eraginkortasunez heltzeko.

2024. urtearekin alderatuta, gora egin dute abisuek hiru lurraldeetan. Ildo horretan, aztertutako bektoreetan (ura, airea, ingurune naturala eta lurzorua) kexak pixkanaka handitzen ari direla ikusten da. Horrekin batera, ingurumen-kalitatea ez da nabarmen aldatu, eta horrek erakusten du herritarren kontzientzia eta salaketa-kanaletarako sarbidea estatistika-erregistroaren eragile nagusi gisa funtzionatzen ari direla, ingurumen-bektoreen benetako narriadura baino gehiago.

2.7 Hondakinak eta materiak kudeatzea jarduerak amaitu ondoren.

Erreferentzia 2025/07

2.7.1 Jarduketak

2025ean egindako jarduerak proiektuan aurreikusitakoak izan ziren. Proiektuaren helburu nagusia lurzorua, ura edo airea kutsatzeagatiko ingurumen-arriskua murriztea da, jarduera arrazoi ekonomikoengatik utzi duten instalazioetan, konkurtso-prozesuan daudenetan edo egon litezkeenetan. Era berean, aldi baterako edo behin betiko arrazoi ez ekonomikoengatik jarduera utzi duten jarduerena. Besteak beste, honako jarduera hauek egin dira:

- Aldian-aldean identifikatzea aldi baterako edo behin betiko eten daitezkeen jarduerak edo dagoeneko amaitu direnak.
- Arrisku handienekotzat jo diren jarduerak ikuskatzea.
- Jardueren, hondakinen kudeaketaren, lehengaiak erretiratzearen eta lurzoruan jardutearen arduradunei errekerimenduak egitea.

2.7.2 Ondorioak

Bertan behera utzitako IPPC jardueren ikuskapen bat egin da.

2.8 Neurketak Erakunde Egiaztatuekin

Erreferentzia 2025/08

2.8.1. Jarduketak

2025eko ekitaldian lau proiektu egitea aurreikusi zen, esparru-akordioko lote bakoitzarekin lotutako proiektu bana. Esparru-akordioko loteak jarraian zehazten diren ingurumenaren gaineko eragin-eremuekin lotuta daude.

Ekitaldian zehar lau proiektuak gauzatu dira, lote bakoitzean bana, hemen deskribatzen den bezala:

1. lotea- Emisioa: Arrasateko enpresa bateko bi fokutan airera egindako emisioak (partikulak) neurtzea
2. lotea.- Immisioa: PM10 partikulen eta partikula esekien neurketa bi hilabetez Elorrioko industria-instalazio baten ingurunean
3. lotea- Zarata: Basauriko industria-instalazio baten kanpoko zarataren neurketa
4. lotea- Usainak: Barakaldoko industria-instalazio baten usain-emisioaren neurketa eta modelizazioa.

2.8.2. Ondorioak

2025. urtean 4 neurketa-proiektu egiteko aurrez ezarritako plana bete da.

3. AZKEN ONDORIOAK

2025eko Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programan adierazi bezala, Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Programa osorik garatzeko. Horregatik, eskuragarri dauden baliabideen arabera diseinatutako Programa lehentasun handieneko proiektuekin hasi da eta gainerakoak baliabideen eskuragarritasunaren arabera hedatu dira.

Bestalde, azpimarratu behar da, 2019-2026 Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Planak 5. atalean (Jarduerak lehenestea) ezartzen duen bezala, ingurumenean eragina duten gertakari eta istripuen abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea lehentasunezko jardueratzat jotzen dela gainerakoan aldean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ikuskaritza Zerbitzua osatzen duten ikuskatzaileek modu jarraituan 2025 Programan definitutako proiektuak gauzatzean lortutako betetze-maila oso altutzat jotzen da, proposatutako helburu ia guztiak bete baitira.

Erreferentzia	Aurreikusitako jarduerak	Egindako jarduerak	%
2025-01	139	139	%100
2025-02	220	223	%101
2025-03	3	2	%66
2025-04	50	48	%96
2025-05	9	22	%244
2025-06	Kualitatiboa (zenbakia zehaztu gabe)	774	%100
2025-07	Kualitatiboa (zenbakia zehaztu gabe)	1	%100
2025-08	4	4	%100

9. taula. 2025ean gauzatutako ikuskapen-proiektuen betetze-mailaren laburpena

Programan jasotako eta ondoren aipatutako proiektuez gain, 2025ean honako lan hauek egin dira, 2019-2026 Ikuskapen Planaren jarduerestrategiekin bat etorritz:

"Zerbitzuaren ikuskapen-ahalmena handitzea" estrategiari dagokionez, 2024an bezala, Ingurumen Lankidetzako Erakundeei eskatu zaie industria-jardueretan emisioak, immisioa, usainak edo zarata neurtzeko. 2025 programan, lan hau proiektu zehatz gisa sartu zen (2025-08), eta horregatik azaltzen da dagokion puntuan.

Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea strategiari dagokionez, helburuei, strategiari eta irizpideei dagokienez, honako hau egin da:

- IMPEL European Union Network for de Implementation and Enforcement of the Law ingurumen-ikuskaritzako sare europarrean parte hartzea, hainbat proiektutan.
- REDIA Ingurumen Ikuskaritzako autonomiaz gaindiko erakundean parte hartzea.